1004-2004 Milurteurrena · Milenario · Millénaire

# antso III.a

seigneur des basques **euskaldunen jauna** señor de los vascos

## PASADO, FUTURO

## IRAGANA, GEROA

## PASSÉ, FUTUR

# Millénaire 1004-2004

**Udalbiltza®, la Mairie d'Hondarribia, la Fondation Euskokultur et l'Association Foro Irun XXI, ont organisé plusieurs actes à l'occasion du millénaire du couronnement de Sanche III le Majeur, connu comme le "Seigneur des Basques".**

**Cette commémoration a pour but d'enrichir et de fortifier la mémoire historique et la conscience collective du peuple Basque, sur l'un de ses personnages et l'une de ses époques les plus importants. Elle veut, notamment, rappeler et souligner la valeur symbolique du Royaume de Navarre en tant que territoire de tous les Basques, qui a été une réalité dans le passé et qui est une aspiration dans le présent.**

**Toutes ces initiatives ont deux caractéristiques principales: rigueur historique et participation populaire. D'une part, on offre et on favorise l'approche documentée et contrastée aux origines de cette époque. D'autre part, les activités se basent sur la collaboration des personnalités de la culture basque et des collectifs locaux. On a ainsi élaboré un large éventail de propositions culturelles, destinées à tous les citoyens.**

Sanche III Garces le Majeur, roi de Pampelune (1004-1035) est le huitième roi du royaume de Pampelune, plus tard royaume de Navarre, qui a duré de 824 à 1789. À cette époque-là, le royaume atteint son étendue la plus vaste et obtient un niveau de développement et de bien-être social et politique très avancé parmi les états européens émergeants.

À l'est, il étend le royaume jusqu'aux contrées de Sobrarbe, Ribagorza et Pallars, au détriment des musulmans, affaiblis à la mort du Grand Almanzor. En dehors d'Aragon, Sanche se lie d'amitié avec le jeune compte de Barcelone, Berenguer Raymond, ainsi qu'avec un autre catalan: le moine Oliva, père abbé de Ripoll en 1008 et évêque de Vich en 1017, très cultivé et conseiller du roi de Pampelune, avec qui il entretient des rapports épistolaires.



Sceau du Roi Sancho III Le Majeur, avec la légende Sanchius Rex.

Au Nord, Sanche III le Majeur entretient des rapports étroits avec le duc de Gascogne, Sanche Guillermo, qui considère le roi de Pampelune comme son souverain. Sous la protection de Sanche le Majeur, les vicomptés de Zubéroa et de Lapurdi sont crées au duché de Gascogne.

À l'Ouest, Munia, épouse de Sanche, devient la Seigneure de Castille, et par conséquent ce territoire est aussi gouverné par le roi de Pampelune, grand diplomate qui réussit à s'attirer l'amitié de la noblesse, du clergé et des marchands des bourgs castillans.

Sanche III Le Majeur est moins connu pour ses batailles que pour son travail en faveur de la culture, de l'amplification de la reforme bénédictine et du développement de l'art roman, notamment sur le Chemin de Saint Jacques.

À cette époque-là, les habitants de la montagne d'Aragon, d'une grande partie de la Gascogne, de La Rioja et de la Bureba dans la Vieille Castille et des alentours de Burgos, sont encore bascophones. Et au centre de tous ceux-ci se trouvent les basques de Navarre. L'appartenance à une même communauté linguistique favorise le rapprochement et la bonne entente entre les citoyens.

À sa mort, et contre la volonté de leur père, ses quatre enfants se partagent le royaume dont l'influence s'était étendue, par le biais de la diplomatie plus que par celui de la guerre, des limites de la Catalogne jusqu'à ceux de Léon et de la Garonne jusqu'au Duero.

"L'historien arabe contemporain Ibn Haiyan parle de lui comme de «Sanche, fils de Garcia, *Seigneur des Vascons*, qui après la mort de Sanche de Castille, a régné en solitaire». Il devient, grâce a cette concentration de pouvoir, le roi le plus craint et respecté de son temps. Il est en outre le paladin de l'européisation. Son royaume devient, grâce à lui, une porte d'entrée d'idées, de disciplines et de sentiments nettement européens et occidentaux: l'étendue de ses domaines à toute la Vasconie Ducale, l'introduction de l'observance bénédictine de Cluny à Saint Jean de la Peña, Leire et Oña, et la promotion et organisation du Chemin de Saint Jacques" (Encyclopédie Auñamendi).

## Actes de millénaire

***29 mai***
**Cantate "Antso Handia, errazu" (orgue et choral)**
Hondarribia, Paroisse, 20:00 h.

***30 mai***
**Inauguration du monument à Sancho III**
Hondarribia, Parage Talaia, sur le Phare Higer.
11:00 h. Rendez-vous au parking á côté du camping du Phare de Higer. Départ à pied jusqu'au Monument
11:30 h. Acte d'inauguration.

***12 juin***
**Représentation théâtrale "Antso Erregea"**
Hondarribia, Murailles, 22:00 h.

***19 juillet***
**Cantate "Antso Handia, errazu" (Jeune Orchestre d'Euskal Herria)**
Bilbao, Euskalduna, 20:00 h.

***20 juillet***
**Cantate "Antso Handia, errazu" (Jeune Orchestre d'Euskal Herria)**
Hondarribia, Hondartza Kiroldegia, 20:00 h.

***21 juillet***
**Cantate "Antso Handia, errazu" (Jeune Orchestre d'Euskal Herria)**
Saint Sébastien, Kursaal, 20:30 h.

***23 juillet***
**Cantate "Antso Handia, errazu" (Jeune Orchestre d'Euskal Herria)**
Vitoria, Théâtre Principal, 20:00 h.

***25 juillet***
**Pastorale"Antso Handia"**
Maule, Terrain de sports, 15:30 h.

***31 juillet***
**Représentation théâtrale "Antso Erregea"**
Hondarribia, Murailles, 22:00 h.

***1er août***
**Pastorale"Antso Handia"**
Maule, Terrain de sports, 15:30 h

***21 août***
**Pastorale"Antso Handia"**
Hondarribia, Murailles,17:30 h.

***12 septembre.***
**Pastorale"Antso Handia"**
Amurrio, 16:30 h.
Salon des sports Bañueta.

# Milenario 1004-2004

**Udalbiltza®, el Ayuntamiento de Hondarribia, la Fundación Euskokultur y la Asociación Foro Irun XXI han organizado una serie de eventos con motivo del milenario de la coronación de Sancho III el Mayor, conocido como el "Señor de los Vascos".**

**Esta conmemoración tiene como objetivo enriquecer y fortalecer la memoria histórica y la conciencia colectiva del Pueblo Vasco, en base a una de sus figuras y época históricas más relevantes. Concretamente, quiere recordar y destacar el valor simbólico del reino de Navarra como ámbito de todos los vascos, que fue realidad en el pasado y aspiración en el presente.**

**Todas estas iniciativas tienen dos características principales: rigor histórico y participación popular. Por un lado, ofrecen y facilitan el acercamiento documentado y contrastado a las principales claves de aquella época. Por otro, estas actividades se apoyan en la colaboración de personalidades de la cultura vasca y de colectivos locales. De este modo se ha preparado una amplia y diversa oferta cultural abierta a toda la ciudadanía.**

Sancho III Garcés el Mayor, rey de Pamplona (1004-1035) es el octavo rey del reino de Pamplona, más tarde reino de Navarra, que duró desde el año 824 al 1789. En su tiempo, el reino alcanzó la mayor extensión y logró un avanzado nivel de desarrollo social y político entre los nacientes estados europeos.

Al Este, extendió el reino hasta las comarcas de Sobrarbe, Ribagorza y Pallars, en detrimento de los musulmanes, debilitados a la muerte del Gran Almanzor. Más allá de Aragón, Sancho establece una gran amistad con el joven conde de Barcelona Berenguer Raymond, así como con otro catalán: el fraile Oliva, padre abad de Ripoll en 1008 y obispo de Vich en 1017, gran ilustrado y consejero del rey de Pamplona, con el que mantiene correspondencia por carta.




Mapa de Europa del año mil
(Petrus Derveaux)

Al Norte, Sancho III el Mayor mantiene estrechas relaciones con el duque de Gascuña, Sancho Guillermo, que consideraba al rey de Pamplona como su soberano. En el ducado de Gascuña, bajo la protección de Sancho el Mayor, se crean los vizcondados de Zuberoa y de Lapurdi.

Al Oeste, Munia, esposa de Sancho, se convierte en Señora de Castilla y, en consecuencia, ese territorio será gobernado también por el rey de Pamplona, gran diplomático que hábilmente se gana a la nobleza, al clero y a los mercaderes de los burgos castellanos.

Sancho III el Mayor no destaca tanto por sus batallas como por su impulso a la cultura, por la extensión de la reforma benedictina y el desarrollo del arte románico, especialmente en el Camino de Santiago.

En la época todavía eran vascófonos los montañeses de Aragón, en buena parte de la Gascuña, La Rioja y la Bureba en Castilla la Vieja, hasta las inmediaciones de Burgos. Y en el centro de todos ellos se encontraban los vascones de Navarra. La pertenencia a una misma comunidad lingüística supone un factor de acercamiento y entendimiento.

A su muerte, contra la voluntad de su padre, sus cuatro hijos se reparten el reino cuya influencia se había extendido, más por la diplomacia que por la guerra, desde los límites de Cataluña hasta los de León y desde el Garona hasta el Duero.

"El historiador árabe contemporáneo Ibn Haiyan, se refiere a él como «Sancho, hijo de García, *Señor de los Vascones*, el cual, después de la muerte de Sancho de Castilla, reinó solo». Esta gran concentración de poder le hizo el rey más temido y respetado de su tiempo. Además, es el paladín de la europeización. Convierte a su tierra en puerta de entrada de ideas, disciplinas y sentimientos netamente europeos y occidentales: la extensión de sus dominios a toda la Vasconia Ducal, la introducción de la observancia benedictina de Cluny en San Juan de la Peña, Leire y Oña; y el fomento y organización del camino de Santiago". (Enciclopedia Auñamendi).

## Actos del milenario

***29 de mayo***
**Cantata "Antso Handia, errazu" (órgano y coro)**
Hondarribia, Parroquia, 20:00 h.

***30 de mayo***
**Inauguración del monumento a Sancho III**
Hondarribia, Paraje Talaia, sobre el Faro Higer.
11:00 h. Cita en el parquing que está junto al camping del Faro de Higer. Salida a pie hasta el Monumento.
11:30 h. Acto de inaguración.

***12 de junio***
**Representación teatral "Antso Erregea"**
Hondarribia, Murallas, 22:00 h.

***19 de julio***
**Cantata "Antso Handia, errazu" (Joven Orquesta de Euskal Herria)**
Bilbao, Euskalduna, 20:00 h.

***20 de julio***
**Cantata "Antso Handia, errazu" (Joven Orquesta de Euskal Herria)**
Hondarribia, Hondartza Kiroldegia, 20:00 h.

***21 de julio***
**Cantata "Antso Handia, errazu" (Joven Orquesta de Euskal Herria)**
San Sebastian, Kursaal, 20:30 h.

***23 de julio***
**Cantata "Antso Handia, errazu" (Joven Orquesta de Euskal Herria)**
Vitoria, Teatro Principal, 20:00 h.

***25 de julio***
**Pastoral "Antso Handia"**
Maule, Campo deportivo, 15.30 h.

***31 de julio***
**Representación teatral "Antso Erregea"**
Hondarribia, Murallas, 22:00 h.

***1 de agosto***
**Pastoral "Antso Handia"**
Maule, Campo deportivo, 15:30 h.

***21 de agosto***
**Pastoral "Antso Handia"**
Hondarribia,
Murallas, 17:30 h.

***12 de setiembre***
**Pastoral "Antso Handia"**
Amurrio, 16:30 h.
Polideportivo Bañueta.

# Milurteurrena 1004-2004

**Udalbiltzak®, Hondarribiko Udalak, Euskokultur Fundazioak eta Foro Irun XXI Elkarteak ekitaldi batzuk antolatu dituzte Antso III.a Handia errege koroatu zutenetik mila urte pasa diren honetan. Errege horri "Euskaldunen Jauna" esaten zaio.**

**Ospakizun horrek helburu du Euskal Herriaren memoria historikoa eta herri kontzientzia aberastu eta indartzea, bere irudirik eta garai historikorik nabarmenetakoak oinarri harturik. Zehazki, ospakizunak gogora ekarri eta azpimarratu nahi du Nafarroako Erresumaren balio sinbolikoa, huraxe izan baitzen euskaldun guztien topalekua. Gaur egun, halaxe ere izatea nahi genuke, iraganean izan zen bezala.**

**Ekimen horiek guztiek bi ezaugarri nagusi dituzte: zorroztasun historikoa eta herri partaidetza. Alde batetik, ekimenen bidez, aukera izanen dugu garai hartako gako nagusietara hurbiltzeko, agirietan oinarriturik. Beste alde batetik, ekimen horiek aurrera eramanen ditugu, euskal kulturako gizon-emakume ospetsuek eta herrietako taldeek lagundurik. Horrela, benetan kultur eskaintza zabala eta oparoa prestatu dugu, herritar guztiei zabalik.**

Antso III.a Gartzes (Antso Handia) Iruñeko errege izan zen (1004-1035). Zehazki, Iruñeko erresumako zortzigarren erregea. Ondotik erresumari Nafarroako erresuma deitu zitzaion. Nolanahi ere, 824. urtean hasi eta 1789ra arte iraun zuen. Errege horren agindupean, erresumak bere hedadurarik handiena lortu zuen eta, halaber, garapen maila handia erdietsi zuen gizartean eta politikan Europan sortzen ari ziren estatuen artean.

Ekialdera, erresuma zabaldu zuen Sobrarbe, Ribagortza eta Pallars alderaino, musulmanen kaltetan. Musulmanak gainbehera zetozen Almantzor Handia hil zenez geroztik. Aragoiz harata,



Goi Erdi Aroko nekropolian aurkitutako eraztuna, Momoitio, Garai, Bizkaia.
Nafarroako Erresumaren armarria ageri da.

Antsok adiskidantza handia izan zuen Bartzelonako Berenguer Raymond kondé gaztearekin, eta beste adiskide bat ere bazuen Katalunian: Oliva fraidea. Gizon hori Ripolleko aita abadea izan zen 1008an eta Vicheko apezpikua 1017an. Itzal handiko gizona eta Iruñeko erregearen kontseilaria. Harremanak gutunen bidez bideratu zituzten.

Iparraldera, Antso III.a Handiak harremanak sakondu zituen Gaskoniako Antso Gilen dukearekin. Duke horrek Antso Handia jotzen zuen bere erregetzat. Gaskoniako dukerrian, Antso Handiaren hegalpean, Zuberoa eta Lapurdiko bizkonderriak sortu ziren.

Mendebaldera, Antsoren emazte Munia Gaztelako Andere bihurtu eta, ondorioz, Iruñeko erregeak ere lurralde hura gobernatu zuen. Gure erregeak diplomazia handiz jokatu eta, abileziaz, bere alde bildu zituen Gaztelako nobleak, elizjendea eta burguetako merkatariak.

Antso III.a Handiak ez zuen, oro har, gudaldi nabarmenik egin. Haren ezaugarria da kultura luze eta zabal sustatu izana, beneditarren erreforma hedatu izana eta arte erromanikoari eman zion bultzada, bereziki Done Jakue bidean.

Garai hartan, oraindik euskaldunak ziren Aragoiko menditarrak, Gaskoniako leku askotan, Errioxan eta Gaztela Zaharreko Bureban, Burgostik hurbil. Eta haien guztien erdian Nafarroako baskoiak zeuden. Hizkuntza bera mintzatzea, hiztun talde berean partaide izatea topalekua da, elkar ulertzeko eta hartzeko bidea, alegia.

Erregea hiltzean, aitaren borondatearen aurka, bere lau semeek erresuma elkarren artean banatu zuten. Antso Handiak diplomazian oinarritu zen erresuma zabaltzeko eta ez horrenbeste gerran. Honatx erresumaren hedadura: Kataluniako mugetatik Leon alderaino eta Garonatik Dueroraino.

"Inb Haiyan historialari garaikideak honela deitu zion: «Antso, Gartziaren Semea *Euskaldunen Jauna*, Gaztelako Antso hil ondoren, bakarrik gobernatu zuena». Botere handia bildu zuen bere eskuetan. Horregatik, garai hartako erregerik errespetatuena izan zen, larderiatsuena. Gainera, europartzearen aitzindaria izan zen. Ateak zabaldu eta Europako nahiz Mendebaldeko ideiak, jakintzak eta sentimenduak sartu ziren erresuman. Bere agintea Baskoniako Dukerri osora zabaldu zuen, Klunitarren arau beneditarra sartu zuen San Juan de la Peñan, Leiren eta Oñan; eta Done Jakue Bidea sustatu eta antolatu zuen". (Auñamendi Entziklopedia)

## Milurteurrenaren ekitaldiak

***Maiatzak 29***
"Antso Handia, errazu" Kantata (organoa eta abesbatza)
Hondarribia, Eliza, 20:00etan.

***Maiatzak 30***
**Antso III.aren monumentuaren inaugurazioa**
Hondarribia, Talaia, Higer Itsasargiaren gainaldean.
11:00etan: Hitzordua, Higer lurmuturreko Itsasargiaren kanpinaren ondoko aparkalekuan.
Oinez monumenturaino.
11:30etan. Inaugurazio ekitaldia.

***Ekainak 12***
**"Antso Erregea" antzezpena**
Hondarribia, Harresilanda, 22:00etan.

***Uztailak 19***
"Antso Handia, errazu" Kantata (Euskal Herriko Gazte Orkestra)
Bilbo, Euskalduna, 20:00etan.

***Uztailak 20***
"Antso Handia, errazu" Kantata (Euskal Herriko Gazte Orkestra)
Hondarribia, Hondartza Kiroldegia, 20:00etan.

***Uztailak 21***
"Antso Handia, errazu" Kantata (Euskal Herriko Gazte Orkestra)
Donostia, Kursaal, 20:30etan.

***Uztailak 23***
"Antso Handia, errazu" Kantata (Euskal Herriko Gazte Orkestra)
Gasteiz, Principal Antzokia, 20:00etan.

***Uztailak 25***
**"Antso Handia" pastorala**
Maule, kirol zelaia, 15:30ean.

***Uztailak 31***
**Antzezpena "Antso Erregea"**
Hondarribia, Harresilanda, 22:00etan.

***Abuztuak 1***
**"Antso Handia" pastorala**
Maule, kirol zelaia, 15:30ean.

***Abuztuak 21***
**"Antso Handia" pastorala**
Hondarribia,
Harresilanda, 17:30etan.

***Irailak 12***
**"Antso Handia" pastorala**
Amurrio, 16:30etan.
Bañueta polikiroldegia.

# Antso III.a Handia

## 1004-2004 Milurteurrena

Libros editados con motivo del milenario:

- Colección documental de Sancho Garcés III, el Mayor. Rey de Pamplona (1004-1035)
- Euskal Herria en el siglo XI. Reinado de Sancho III el Mayor, rey de Pamplona (1004-1035)

Milurteurrenaren karietara argitaratu diren liburuak:

- Antso Gartzes III.a Handiaren agiri bilduma. Iruñeko errege (1004-1035)
- Euskal Herria XI. mendean. Iruñeko errege Antso III.a Handiaren erregealdia (1004-1035)

Livres édités à l'occasion du millénaire:

- Collection documentaire de Sanche Garcés III, le Majeur. Roi de Pampelune (1004 -1035)
- Euskal Herria au XI ème siècle. Règne de Sanche III le Majeur, roi de Pampelune (1004 -1035)

Antso III.a Handiaren eta Milurteurrenaren ekitaldien gaineko argibideak:

**http://www.udalbiltzainfo.com/sanchoinfoeu.htm**
**e-mail: antsoIII@kaixo.com**

UDALBILTZA® Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra www.udalbiltzainfo.com

Hondarribiko Udala

FORO IRUN XXI hogeitabat

Euskokultur Fundazioa

eitb euskal irrati telebista